



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALAK 2008KO UZTAILAREN 23AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

### **Batzarerratuak:**

#### **Alkatea:**

*Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*

#### **Zinegotziak:**

*Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna  
Angel Luis Uribarri Gondra jauna  
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea  
Roman Etxeandia Zabala*

#### **Idazkaria:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2008ko uztailaren 23an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Gai zerrenda aztertzen hasi aurretik, Alkateak honako gai hau proposatzen du aho batez gai zerrendan sartzeko:

"Ajangizko Mendieta auzoko BI-3224 errepide foralean rotonda bat eraiki eta trafikoa moteltzeko neurriak hartzeko hirigintza eraigarritasuna gordez lurren dohaineko zeziorako Hitzarmenaren onarpena, behar bada".

Bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute aipatutako gaia 9. Puntu modura zerrendatzea:

*9.- Ajangizko Mendieta auzoko BI-3224 errepide foralean rotonda bat eraiki eta trafikoa moteltzeko neurriak hartzeko hirigintza eraigarritasuna gordez lurren dohaineko zeziorako Hitzarmenaren onarpena, behar bada.-*

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

### **1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-**

2008ko ekainaren 4an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.



Ajangizko Udala

## 2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Maiatzaren 30eko 2008/40 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.L. jaunak, Santiago Aresti basotik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimenagatik jarritako bermearen itzulketa.
- **Ekainaren 2ko 2008/41 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.F.G. jaunari Enbeita barri baserriaren atzekaldeko lurrian 95 m<sup>2</sup>ko hormigoi plaka bat botatzeko baimena ematea, baserriko urbanizazio modura.
- **Ekainaren 6ko 2008/42 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko Calzada Erresidentziaren alde 100,00 euroko dirulaguntza onartzea.
- **Ekainaren 6ko 2008/43 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kontseiluari 2008 ekitaldirako aurreikusi dituen helburuak lortzen laguntzeko 300,00 euroko dirulaguntza ematea.
- **Ekainaren 6ko 2008/44 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Odolkideak, Odol emoileen Ekarteari 50,00 euroko laguntza ematea.
- **Ekainaren 6ko 2008/45 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mentzetara doan landabieda egokitzeko lanen I.faseko lanen asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza dela eta Humberto Fernandez Pascual jaunak aurkeztutako 2008ko maiatzaren 22ko AJ-A1/2008 faktura onartzea, 1.414,00 euroko kopuru orokorrarekin.
- **Ekainaren 6ko 2008/46 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Datu Pertsonalen babesa bermatzeko legediak arautzen duena kontutan hartuta, batez ere titulartasun publikoko datu pertsonalak jasotzen dituzten fitxategiak eta datuen baserako Euskal Agentzia sortzen duen otsailaren 25eko 2/2004 Legea eta Segurtasun neurriak arautzen dituen 994/1999 Erret Dekretua aplikatu asmoz, Ajangizko Udalean adaptazioa burutzeko Interius consulting enpresak aurkeztutako proposamena onartu eta 1.078,80 euroko gastua onartzea, 2008ko udal aurrekontuko 121.22707 kontuaren gain.
- **Ekainaren 19ko 2008/47 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** ATMOSFERA ETA BIODIBERTSITATEA. KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO JARDUEREN barruan "Ajangizko oinezko mugikortasun sarearen sorrera eta mantenimendua" proiektua onartu eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailburutzari laguntza ekonomikoa eskatzea.
- **Ekainaren 19ko 2008/48 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** ATMOSFERA ETA BIODIBERTSITATEA. EAeko BIOLOGIA-ANIZTASUNA MANTENTZEA ETA HOBETZEA SUSTATZEN DUTEN EKINTZAK, HORRETARAKO HABITATEN ETA EKOSISTEMEN FUNTZIONAMENDU JASANGARRIA BABESTU ETA



*Ajangizko Udala*

BERRESKURATZEKO JARDUEREN barruan "**Ajangizen Oka ibaiaren eskuin aldeko Biodibertsitatea berrezkuratzea**" proiektua onartu eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailburutzari laguntza ekonomikoa eskatzea.

- **Ekainaren 20ko 2008/49 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Datorren uztailaren 12an ospatuko den II Atxarre Xtreme-Zabalia Memoriala, mendiko txirrindularitza ibilaldia ospatzeko, Ajangizko udal jabegopeko herri bideak erabiltzeko baimena ematea.
- **Ekainaren 23ko 2008/50 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2008ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Ekainaren 23ko 2008/51 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop. enpresari 13,2 Kvko Ajangiz-Zugaztieta Zto. 5 aireko linearen aldaera 9014 eta 9017 euskarri artean eta dagoen linearen zatikapena Ajangizko udalerrian instalatzeko baimena ematea.
- **Ekainaren 23ko 52/2008 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA.-** Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. fasea, oinezkoen bide gorrirako kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea.
- **Ekainaren 25eko 53/2008 ALKATETZAREN EBAZPENA.-** MAIER S.COOP. enpresari, prozeduran interesdun den einean, hamar (10) eguneko entzunaldia ematea, urbanizazio proiektuaren onarpenaren aurka aurkeztutako errekurtsoari erantzuna eman diezaion.
- **Ekainaren 27ko 2008/54 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizen, Maier S. Coop. enpresa Euskaltelen telekomunikazio sarera lotzeko hiru hodiko instalazioa burutzeko baimena ematea
- **Ekainaren 30eko 2008/55 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko 2. Hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea
- **Uztailaren 2ko 2008/56.1 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxeko zur estrukturaren gaineko tratamendu antixilofagoa onartzea, 4.307,68 euroko kostua onartuz
- **Uztailaren 3ko 2008/56 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2008ko etxez-etxeko laguntzarako 2/2008 espediente onartzea, eguneko ordu t'erdiko laguntza onartuz (astelehenetik ostiralera) 2008ko uztailaren 7tik aurrera
- **Uztailaren 3ko 2008/57 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2008ko etxez-etxeko laguntzarako 1/2007 espedienteari bukaera ematea, orain arte emandako etxez-etxeko laguntza zerbitzua betan behera utziz 2008ko uztailaren 6tik aurrera.



*Ajangizko Udala*

- **Uztailaren 3ko 2008/58 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2008ko etxez-etxe laguntzarako 2/2007 espedientea onartzea, eguneko ordu beteko laguntza onartuz (astelehenetik ostiralera) 2008ko uztailaren 7tik aurrera
- **Uztailaren 4ko 2008/59 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako eskaera kontutan hartuta, Zubialde-Aristieta landabideko I. eta II. faseko lanek sortututako betebeharreri aurre egiteko jarritako Abalen Errolda Berezian 6988/8612-0022 zenbakiarekin jasotako 2006ko abenduaren 13ko 2.404,03 euroko eta Abalen Errolda Berezian 6988/8612-0025 zenbakiarekin jasotako 2007ko martxoaren 6ko 1.464,06 euroko behin betiko abalak itzultzea
- **Uztailaren 7ko 2008/60 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udal lanetarako J.C.C. jauna izendatzea, uztailaren 15etik irailaren 15era bitartean udal operariak burutu beharrezko lanak egin ditzan, astelehenetik ostiralera, egunean lau orduko lanaldian.
- **Uztailaren 7ko 2008/61 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** II Atxerre Xtreme, Memorial Zabalia frogarako 300,00 euroko laguntza onartzea.
- **Uztailaren 7ko 2008/62 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** GERNIKA CLUB taldeari 200 euroko dirulaguntza ematea, 2008-2009 ikasturteko gastuetan laguntzeko.
- **Uztailaren 7ko 2008/63 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2008ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Uztailaren 7ko 2008/64 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.O.G. andreari, euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea, guztira 38,00 euro.
- **Uztailaren 14ko 2008/66 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.E.T. andreari, Uriburu baserri barruan garajea txoko bihurtzeko lanetarako baimena ematea

### **3.- NORBERAREN DATUAK JASOTZEN DITUEN FITXATEGIAK SORTZEKO ETA EZABATZEKO AJANGIZKO UDALAREN ORDENANTZAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Abendauren 13ko Norberaren Datuak Babesteko 15/99 Lege Organikoak eta otsailaren 25eko Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko 2/2004 Legeak araututakoa bete asmoz, Alkate Udalburuak Norberaren Datuak jasotzen dituen fitxategiak sortzeko eta ezabatzeko Ajangizko Udalaren Ordenantza aurkezten du.

Ordenantzaren berri emanda eta Idazkariak egindako txostena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurari onarpenerako aurkezten zaio.

Udalbatzak, batzartutako zinegotzien aho batez, adosten du:



*Ajangizko Udala*

**Lehenengo.-** Norberaren Datuak jasotzen dituen fitxategiak sortzeko eta ezabatzeko Ajangizko Udalaren Ordenantza behin behinez onartzea.

**Bigarren.-** Ordenantza hogeita hamar egunez jendaurrean aurkeztu dadila agintzea, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dezaten, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udal iragarki oholean argitaratuz.

**Hirugarren.-** Jendaurreko epean inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

**4.- 2008 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 2/2008 ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008 aurrekontua aldatu beharra ikusi du, Maier-Menideta landabidea egokitzeko lanen I. faseak sortutako kostuei aurre egiteko; hori dela eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR	KOPURUA CUANTIA
511.62212	13.044,79 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>13.044,79 €</b>

GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR	KOPURUA CUANTIA
Remanente líquido de tesorería	13.044,79 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>13.044,79 €</b>

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

**Lehenengo.-** Kreditu gehiketaz egindako 2/2008 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

**Bigarren.-** Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

**Hirugarren.-** Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.



*Ajangizko Udala*

**Laugarren.-** Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

**5.- MAIER MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO I. FASEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA, ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta eta Maier-Mendeita landabideko I. fasea burutzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

**Lehenengo.-** Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko lanak prozedura negoziatu bidez kontratatzekeo espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 185.880,60 €ko gastua ere.

**Bigarren.-** Proiektua eta preskripzio teknikoaren orria onartzea.

**Hirugarren.-** Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

**6.- MAIER MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO I. FASEKO LANEN ZUZENDARITZA ESLEITZEA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko I. faseko lanak burutu ahal izateko, lanen burutzapenerako asistentzia teknikoa eta zuzendaritza kontratatzea nahita nahiezkoa da. Eskatutako aurrekontuaren arabera 4.357,20 euroko kostua izango luke lan horrek.

Jasotako eskaintza aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen legea kontutan hartuta, espedientea osatzen duten txostenetan oinarrituz,

Udal Osoko Bilkurak, aho batez adosten du:

**Lehenengo.-** Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko lanetarako asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza INGENIERIA ARTAZA S.L. enpresako Carlos Ortiz de Zarate jaunari agintzea, 4.357,20 euroko kostu orokorrarekin.

**Bigarren.-** Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

**7.- MENTZETARA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA, ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta eta Mentzetara doan landabideko II. fasea burutzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:



*Ajangizko Udala*

**Lehenengo.-** Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. faseko lanak prozedura negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 160.000,00 €ko gastua ere.

**Bigarren.-** Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

**Hirugarren.-** Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

#### **8.- MENTZETARA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEKO LANEN ZUZENDARITZA ESLEITZEA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko II. faseko lanak burutu ahal izateko, lanen buruzapenerako asistentzia teknikoa eta zuzendaritza kontratatzea nahita nahiezkoa da. Eskatutako aurrekontuaren arabera 2.552,00 euroko kostua izango luke lan horrek.

Jasotako eskaintza aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen legea kontutan hartuta, espedientea osatzen duten txostenetan oinarrituz,

Udal Osoko Bilkurak, aho batez adosten du:

**Lehenengo.-** Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. faseko lanetarako asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza INGEKAL enpresako Igor Madariaga jaunari agintzea, 2.552,00 euroko kostu orokorrarekin.

**Bigarren.-** Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

#### **9.- AJANGIZKO MENDIETA AUZOKO BI-3224 ERREPIDE FORALEAN ROTONDA BAT ERAIKI ETA TRAFIKOA MOTELTZEKO NEURRIAK HARTZEKO HIRIGINTZA ERAIGARRITASUNA GORDEZ LURREN DOHAINEKO ZEZIORAKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak, Mendeitan rotonda bat eraikitzeke Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailarekin eta Bizkailurrekin akordioa lortu ahal izateko, Udalari lurren jabetza eskuratzea eskatzen diotela azaltzen du.

Horretarako eta Bizkailurrek rotonda eraikitzeke aurkeztu duen proiektua kontutan hartuta, Serrerriako guneari 354,30 metro karratu kendu behar zaizkio, eta lur horiek eskuratu ahal izateko, jabeekin hitzarmen bat sinatzea proposatzen da.

Hitzarmen horretan lurren jabeek, hirigintza eraigarritasuna gordez lurren dohaineko zezioa eskaintzen dute.

Adierazitakoa kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez adosten dute:



*Ajangizko Udala*

**Lehenego.-** Ajangizko Mendieta auzoko BI-3224 errepide foralean rotonda bat eraiki eta trafikoa moteltzeko neurriak hartzeko hirigintza eraigarritasuna gordez lurren dohaineko zeziorako Hitzarmena onartzea.

**Bigarren.-** Alkate Udalburua hitzarmena sinatu eta berau formalizatzeko beharrezko tramite guztiak burutzeko ahalmentzea.

### **10.- AJANGIZKO BAKE EPAITEGIKO EPAILE ETA ORDEZKOAREN IZENDAPEN PROPOSAMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

EAE ko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak, 2008ko ekainaren 9an Ajangizko bake epaile titular eta ordezkariaren lau urteko epea iraganda, hurrengo urteetarako epaile titular eta ordezkari barriak proposatzeko Udalari egindako deialdia kontutan hartuta.

Uztailaren 1eko 6/1985 Botere Judizialeko Lege Organikoak 101 eta ondorengo artikuluetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Bake Epailei buruzko Araudiak xedatzen dutena kontutan hartuta.

Ajangizko Udalak Bando bidez, Gernika Lumoko Epaitegi Dekanatoan egindako Ediktozko iragarki bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean uztailaren 4an egindako iragarki bidez, bake epaile titular eta ordezkariaren izendatze prozesua ireki zuela kontutan hartuta.

Deialdiari erantzunez eskaintza bi egon direla kontutan hartuta, disponibilitatea eta aurkeztutako batek funtzio hau aurretik ere bete duela baloratuz, Udal Osoko Bikurak, bertaratutako zinegotzien aho batez ebatzen du:

**LEHENENA:** Ajangizko Udalerrirako hurrengo urteetarako Bake Epaitegian, titular eta ordezkari bezala, ondokoak proposatzea:

- Titularra: Serafin Ormaetxea Madariaga
- Ordezkaria: Kamilo Fermin Intxausti Urizar

**BIGARRENA:** Akordio proposamen honen barri, EAE ko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari ematea.

**HIRUGARRENA:** Akordio hau barri Udal Iragarki taulen ezartzea.

### **11.- ERREGU ETA GALDERAK.-**

- Alkate Udalburuak, Bizkaiko Foru Aldundiak Mendieta rotonda bat eraikitzeke bidali duen hitzamenaren bigarren borradorearen kopiak banatzen ditu. Azaltzen duenaren arabera, lehenengo borradorean Aldundiak 350.000 euro ematen zituen gainerantzeko guztia, proiektua, lanen esleipena, zuzendaritza, etab. udalaren esku utzita. Era honetako proiektu batek dituen zailtasunak kontutan hartuta eta Ajangizko Udalaren baliabide urriak ikusita, Aldundiarekin batzar berri bat ospatu zen, eta batzar horretan Udalak rotondaren exekuzioa Aldundiak egin



## *Ajangizko Udala*

zezala eskatu zuen, edo horretarako beharrezko baliabideak udalaren esku jarri zitzala. Batzar horretan exekuzioa Bizkailurri eskatzea proposatu zen eta Bizkailurrek baietza eman du. Beraz orain proposatzen den hitzarmena hiru aldetara izango litzateke: Foru Aldundiko Herrilan Sailak dirua jarri, Bizkailurrek exekuzioa burutu eta Udalak lurren jabetza lortu. Hiruren artean jarraipen batzorde bat osatuko da erakunde bakoitzeko partaide bik osatuta. Lanak bukatzean Udala bide zati horren arduradun bilakatuko litzateke.

- Mendietan errepide foralaren ondoko parkeari dagokionez, Gorka Estebez Foru Aldundiko Herrilan Saileko Errepide Zuzendariarekin hitzegin zuen Udalak, parkea katastroan Aldundiarena izanda ere Udalak mantendu baitu azken urtetan. Hori kontutan hartuta, Udalak parkearen jabetza eskuratu edo Aldundiarena izaten jarraitu ezker mantentimendua ere Aldundiak egin dezala eskatu zion. Zentzu horretan idatzi bat bidali zen Bizkaiko Foru Aldundia Estebez jaunak esandakoa betez, eta horren erantzunaren zain dago Udala.

- Alkateak Busturialdeko uren partzuergoarekin izandako batzarren berri ematen du, Bidainek aurkeztu duen plano agerraraziz. Plano horretan Ajangizko saneamendu sarearen egoera aztertzen da, alde batetik Patronatoak onartutako saneamendu bidea, bestetik gaur egungo sarea eta bestetik Bidainek proposatzen duena. Ahal den neurrian Patronatoak onartutakoarekin bat egiten saiatuko dira, Patronatoaren onarpena nahita nahiezko izango baita gero exekuzioa burutu ahal izateko. Gabonetarako proiektua aurkezteko konpromisua hartu du Partzuergoak, Ajangizko saneamendua kolektore generalarekin nola lotu proposatuko dute horretarako faseak zehaztuz. Proiektua burututakoan esan bezala Patronatoaren onaritzia beharko da; eta hori lortuz gero espropiazioak burutu beharko lirateke.

- Bizkailurrek eraikitako babespeko etxebizitzetara dagokienez, jabeetako bi etorri ziren udalera bertan jarritako argi transformadorea etxeetatik urbilegi zegoela zalatuz. Zalaketarekin batera 24 etxebizitzetako jabeen sinadurak aurkeztu zituzten. Kexa hori Bizkailur eta Ibedrolari bidali zitzaienten, eta biek erantzun dute, legedia betetzen dutela eta pertsonenganako kalterik ez dagoela adieraziz. Jabeen erantzun horien berri eman zaie, eta transformadorea hurruntzean saiatuko direla aipatu dute.

- Bizkailurrek eraikitako etxebizitzak direla eta obren bukaera aztertzeke bihar udal arkitektoarekin geratu direla aipatzen du Alkateak, urbanizazioa ondo dagoen ikusi...

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko hamarrak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**

**BITARTEKO IDAZKARIA**